## SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
## ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

| | |
|---|---|
| **AKTA ZK./ *ACTA Nº*** | **313/21** |
| **LEKUA *LUGAR*** | Batzarra modu **EZ PRESENTZIALEAN** egin da, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiko egoera dela eta. Bitarteko elektroniko eta telematikoen bidezko saioa egin da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 46.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.<br>Batzarra egin aurretik, behar diren doikuntza teknikoak egin dira, batzarkide guztien bertaratze telematikoa bermatzeko.<br><br>*La Junta se ha celebrado de forma **NO PRESENCIAL,** dada la situación de urgencia sanitaria provocada por el Covid-19. La sesión se celebra por medios electrónicos y telemáticos de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 46.3 de Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local.*<br>*Previa a la celebración de la Junta se han realizado los oportunos ajustes técnicos para garantizar la asistencia telemática de todos los miembros de la Junta.* |

| **EGUNA/ *DÍA*** | **ORDUA/ *HORA*** | **DEIALDIA/ *CONVOCATORIA*** | **Deialdi eguna/ *Fecha convocatoria*** |
|---|---|---|---|
| 2021/11/26<br>*26/11/2021* | Hasiera/inicio: 13:00<br>Amaiera/final: 13:35 | Ohikoa<br>*Ordinaria* | 2021/11/22<br>*22/11/2021* |

| **BERTARATUAK/ASISTENTES** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. KIDEAK/*VOCALES*** | | | | |
| **UDALA/ *AYTO.*** | **KIDEA/ *VOCAL*** | **BERTARATUA/ *HA ASISTIDO* BAI/SI** | **EZ/NO** | **BOZKAK *VOTOS)*** |
| DONOSTIA SAN SEBASTIAN | Aitziber San Román Abete | X | | 23,5 |
| | Marisol Garmendia Beloqui | X | | 23,5 |
| LASARTE-ORIA | David Mateos Jimenez | X | | 6,5 |
| | Jon Antxordoki Rekondo | X | | 6,5 |
| PASAIA | Andrea Palomares Piñeiro *(Suplente de Lore Suarez Linazasororen ordezkoa)* | X | | 6,5 |
| | Loreto Osa Ocon | X | | 6,5 |
| URNIETA | Jorge Segurado Iriondo | X | | 5,5 |
| | Agurtzane Mercader Ubillos | X | | 5,5 |
| LEZO | José Ángel Sánchez Gallardo | X | | 5,5 |
| | Miguel Angel Sánchez Antúnez | X | | 5,5 |
| ASTIGARRAGA | Xabier Urdangarin Lasa | X | | 5,5 |
| | Aitor Güemes Oyarbide | X | | 5,5 |
| ERRENTERIA | Bernardo Lemos Taberna | X | | 8,5 |
| | Jose Manuel Ferradas Freijo | X | | 8,5 |
| HERNANI | Martin Aldaya Olasagasti | X | | 7,0 |
| | Mª Coro Echeverria Tolosa | X | | 7,0 |
| OIARTZUN | Eneritz Arbelaiz Sarasti | X | | 6,0 |
| | Agustin Lekuona Irastorza | X | | 6,0 |
| USURBIL | Lur Etxeberria Gurrutxaga | X | | 5,5 |
| | Joxe Mari Iribar Zapirain | X | | 5,5 |
| **2. BESTEAK/*OTROS*** | | **GUZTIRA *TOTAL*** | | **160,00** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| IDAZKARIA/ *SECRETARIO* | Xabier Loiola Aristi | ZUZENDARI KUDEATZAILEA *DIRECTORA GERENTE* | Enara Intxausti Zamora |
| KONTU-HARTZAILEA/ *INTERVENTORA* | Lioba Maiza Recondo | TEKNIKARI JURIDIKOA/ *TÉCNICA JURÍDICA* | Itxaso Goenaga Alday |



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

| | GAI ZERRENDA | ORDEN DEL DÍA |
|---|---|---|
| 1. | Irailaren 17ko ohiko batzarraren akta eta azaroaren 5eko ezohiko batzarraren akta onartzea. | Aprobar el acta de la junta ordinaria del día 17 de septiembre, así como la de la junta extraordinaria de 5 de noviembre. |
| 2. | Lehendakariaren ebazpenen berri ematea. | Dar cuenta de las resoluciones de la Presidencia. |
| 3. | 2022ko aurrekontuaren hasierako onarpena. | Aprobación inicial del Presupuesto para 2022. |
| 4. | 2022ko Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren hasierako onarpena. Esp. 2021OROK0076 | Aprobación inicial de la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo 2022. Exp. 2021OROK0076 |
| 5. | Batzarraren ohiko saioen egutegia onartzea 2022 urterako. | Aprobar el calendario de las sesiones ordinarias de la Junta en el año 2022. |
| 6. | "Aizmendiko zentroari dagozkion instalazioen kudeaketa-zerbitzua" kontratuaren 1. luzapena (2/2017) - Esp. 2021OROK0087 | 1º prórroga del contrato (02/2017): "Explotación del vertedero de residuos inertes y no peligrosos del vertedero de Aizmendi" - Exp. 2021OROK0087 |
| 7. | "San Markoko eta Aizmendiko zabortegietan laguntza teknikoa emateko zerbitzua" kontratuaren 2. luzapena (12/2019) Esp. 2021OROK0089 | 2ª prórroga del contrato 12/2019: "Servicio de asistencia técnica en los vertederos de San Marcos y Aizmendi" - Exp. 2021OROK0089 |
| 8. | "San Marko zentroko zerbitzuak kudeatzea" kontratuaren 2. luzapena (13/2019) Esp. 2021OROK0095 | 2ª prórroga del contrato 13/2019: "Gestión de servicios en el Centro de San Marcos" - Exp. 2021OROK0095 |
| 9. | BANCO SABADELL, S.A.rekin mailegua kontratatzea *"Aizmendiko zabortegia ustiatzeko makina baten hornikuntza" (Esp zk. 03/2021)* finantziatzeko - 2021KONT0003 | Contrato de préstamo con BANCO SABADELL, S.A. para financiar el *"Suministro de una máquina para la explotación del vertedero de Aizmendi" (Exp. nº 03/2021)* 2021KONT0003 |
| 10. | Galde-eskeak | Ruegos y preguntas. |

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

**1. Aurreko bilerako akta onartzea.**

Aho batez onartu dira azken bi bilkuretako aktak:

- Batzordearen ohiko bilkuraren akta, 2021.09.17koa
- Batzordearen ohiz kanpoko bilkuraren akta, 2021.11.05ean.

**1. Aprobación del acta de la reunión anterior.**

Se aprueban por unanimidad las actas de las dos últimas sesiones:

- Acta de la sesión ordinaria de la Junta de fecha 17.09.2021
- Acta de la sesión extraordinaria de la Junta de fecha 05.11.2021

**2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.**

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio Batzarrari, 14 ebazpen (60/2021-72/2021).

**2. Dar cuenta de las resoluciones de la Presidencia**

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por la Presidencia desde la última Junta, 14 resoluciones (60/2021-72/2021).

**3. 2022ko aurrekontuaren hasierako onarpena.**

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du.

2022. ekitaldirako Aurrekontu Proiektu Orokorra aurkezten da.

Ondoren, Mankomunitateko buruak, zuzendari kudeatzaileak eta kontuhartzaileak aurrekontuan jasotako dirusarrera, gastu eta inbertsioei buruzko alderdi garrantzitsuenak azaldu dituzte.

Lehenik eta behin, lehendakariak hartu du parte eta puntu hauek nabarmendu ditu:

⇨ Urnietako instalazioaren gastuak eta dirusarrerak desagertzeak eragina izango du, jakina, 2022ko aurrekontuan.

⇨ Uste du diru-sarrera eta gastu arruntak orekatuta daudela eta inbertsioak kapitulu garrantzitsua direla.

⇨ Egiturari dagokionez, aurreko urteetako aurrekontuaren oso antzekoa da.

⇨ Gastuei dagokienez, langileen gastuak %2,21 dira, eta gastuen %88,50 udalei eskaintzen zaizkien zerbitzuei dagozkie. Atal honek behera egin du, Urnietako

**3. Aprobación inicial del Presupuesto para 2022.**

La Presidenta explica la propuesta y propone su aprobación.

Se presenta el Proyecto de Presupuesto General para el ejercicio 2022.

A continuación, tanto la Presidenta como la directora-gerente y la interventora de la Mancomunidad han explicado los aspectos más relevantes relativos a los ingresos, gastos e inversiones reflejados en el presupuesto.

Interviene en primer lugar la Presidenta y destaca los siguientes puntos:

⇨ La desaparición de los gastos e ingresos de la planta de Urnieta influirá, como es lógico, en el presupuesto de 2022.

⇨ Considera que los ingresos y gastos corrientes están equilibrados y las inversiones suponen un capítulo importante.

⇨ En lo que respecta a su estructura, este presupuesto es muy similar al de años anteriores.

⇨ En el capítulo de gastos, los gastos de personal suponen un 2,21%, un 88,50% de los gastos corresponde a los servicios que se ofrecen a los ayuntamientos. Se observa

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

instalazioa GHKri subrogatu baita.

⇨ Finantza-gastuak handitu egin dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta, finantza-erakundeak gastuak kobratzen hasi baitira likidezia-kontuak mantentzeagatik.

⇨ Inbertsioen atalean San Markoko zabortegia ixteko ekarpen berezia aurreikusi da.

⇨ Edukiontziak erosteaz gain, industrialdeetan biltzeko bi ibilgailu erostea aurreikusten da. Horretarako, mailegu bat eskatuko da 2022aren amaieran. Mailegu horrek ez du amortizaziorik izanen 2022an, eta gainerako maileguek amortizazio egutegia mantenduko dute.

⇨ Diru-sarrerei dagokienez, bi ataletan banatzen dira: batetik, tasak eta bestelako diru-sarrerak, eta, bestetik, transferentzia arruntak.

⇨ Hirugarren kapituloari dagokionez, dirusarreren aurreikuspena, lehengo urtekoarekin alderatuta, gutxiagokoa izango dela aurreikusten da.

⇨ Frakzio bakoitzeko bilketa antzekoa izango dela aurreikusten da, papera saltzeko prezioa nabarmen igoko dela urreikusten bada ere.

⇨ Mankomunitateko udalen ekarpen orokorren aldaketa bi arrazoirengatik gertatu da:

- Urnietako instalazioaren eskualdaketa
- Garbiguneetako arreta-zerbitzuaren kostua handitzea.

Igoera hori beste atal batzuetan optimizatzen saiatuko da.

⇨ Hondakinak kanpoan gehiago tratatzeko arrazoia GHKk tasei %2ko igoera aplikatuko dielako da.

⇨ Aurreko Batzar Nagusian erabaki zen moduan, Urnietako instalazioa eskualdatzeagatik jasoko diren diru-sarrerak San Markoko zabortegia ixteko erabiliko dira. Horregatik, ez da aurreikusten udalek ekarpen hori 2022an egin beharko dutenik.

Ondoren, Zuzendari-kudeatzaileak parte hartzen du eta, besteak beste, puntu hauek

un descenso en este apartado, relacionado con el traspaso de la planta de Urnieta, que se ha subrogado a GHK.

⇨ Los gastos financieros han aumentado con respecto al ejercicio anterior, debido a que las entidades financieras han comenzado a cobrar gastos por mantener cuentas de liquidez.

⇨ En el apartado de inversiones se ha previsto la aportación especial para el cierre del vertedero de San Marcos.

⇨ Además de las compras de contenedores, se prevé asimismo comprar dos vehículos para la recogida en polígonos. Para ello se pedirá un préstamo a finales de 2022. Este préstamo no tendrá amortización a lo largo de 2022 y el resto de los préstamos mantendrán su calendario de amortización.

⇨ En lo relativo a los ingresos, se reparten en dos apartados: por un lado tasas y otro tipo de ingresos, y por otro, las transferencias corrietntes.

⇨ En cuanto al tercer capítulo, se prevé que la previsión de ingresos sea inferior a la del año anterior.

⇨ Se prevé que la recaudación por fracción sea similar, aunque se observe un aumento significativo del precio de venta de papel.

⇨ La variación en las aportaciones generales de los ayuntamientos miembros se debe fundamentalmente a dos motivos:

- La transmisión de la planta de Urnieta
- El aumento del coste del servicio de atención en los garbigunes.

Se intentará optimizar este aumento en otros apartados.

⇨ El incremento en el tratamiento externo de los residuos se debe a que GHK aplicará un 2% de aumento a sus tasas.

⇨ Tal y como se acordó en la sesión de Junta anterior, los ingresos que se percibirán por la transmisión de la planta de Urnieta se destinará al fondo para el cierre de Il vertedero de San Marcos. Por ello, no se prevé que los ayuntamientos tengan que realizar esta aportación en 2022.

A continuación interviene la Directora-gerente y destaca, entre otros, los siguientes puntos:

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

nabarmentzen ditu:

- Lehengo urteko dirusarrerekin alderatuta, aurteko aurrekontuan 1,5 milioi euro gutxiago aurreikusten dira.

- Urnietako instalazioaren eskualdaketak eragina izan du aurrekontuaren hainbat ataletan:
  - Alde batetik, Urnietako lantegian ontzien tratamendutik eratorritako dirusarrerak desagertu egingo dira etorkizunean (3,9 milioi euro inguru)
  - Bestalde, Mankomunitateak ez ditu bere gain hartuko instalazioa ustiatzeko gastuak (3,5 milioi euro inguru).
  - Ondorioz, 2022ko aurrekontuan desagertu egin da plantaren kudeaketak eragindako alde positiboa (400.000 euro inguru).

- Kobrantzen atalean (ordainetan) GHKren diru-sarrera nabarmena jasoko da (diru-sarreren atalean, 6. kapituluan, erregistratua).

- 2022an ekarpen orokorra handitzeko beharra konpentsatzeko neurrien artean, Urnietako instalazioa eskualdatzearen ondorioz, honako hau nabarmentzen da:
  - Urnietako instalazioa eskualdatzearen ondoriozko diru-sarrerak San Markoko zabortegia ixteko funtserako ekarpenak ordaintzeko erabiltzea.

- Kanpoko tratamendurako ekarpena: aurrekontuan gutxi gorabeherako kalkulua aurkezten da, eta, gero, udal bakoitzak GHK instalaziora eramaten dituen hondakinen arabera doituko da. Igoera bat aurreikusten da, GHKk iragarri baitu tasak handituko dituela.

- Zerbitzuengatiko ekarpena: aurreko urtekoaren oso antzekoa da. Gaikako bilketaren zerbitzuari dagozkion baldintza-agiriak prestatzen ari direla jakinarazi du, eta kostuaren igoera txiki bat aurreikusten dela.

- Respecto a los ingresos del año anterior, en el presupuesto de este año se prevén 1,5 millones de euros menos.

- La transferencia de la planta de Urnieta ha repercutido en varios apartados del presupuesto:
  - Por una parte, en el futuro desaparacen los ingresos derivados del tratamiento de envases en la planta de Urnieta (3,9 millones de euros aproximadamente)
  - Por otra parte, la Mancomunidad dejará de asumir los gastos de explotación de la planta (3,5 millones de euros aproximadamente)
  - En consecuencia, en el presupuesto de 2022 desaparece el margen positivo derivado de la gestión de la planta (unos 400.000 euros).

- En el apartado de cobros se percibirá un ingreso considerable de GHK (registrado en el apartado de ingresos, 6º capítulo)

- Entre las medidas para compensar la necesidad de aumentar la aportación general en 2022, motivada por la transmisión de la planta de Urnieta destaca la siguiente:
  - Destinar los ingresos de la transmisión de la planta de Urnieta a cubrir las aportaciones para el fondo del cierre del vertedero de San Marcos

- Aportación al tratamiento externo: en el presupuesto se presenta una estimación aproximada, que se ajustará luego en función de los residuos que cada ayuntamiento lleve a la planta de GHK. Se prevé un aumento debido a que GHK ya ha anunciado a su vez un aumento de sus tasas.

- Aportación por servicios: es muy similar a la del año anterior. Informa de que se están preparando los pliegos correspondientes al servicio de recogida selectiva y se prevé que habrá una ligera subida en el coste.

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

- Inbertsioei dagokienez, zuzkidurak aurreko urtekoen antzekoak dira. Aipatu behar da datorren urtean hasiko direla San Markoko itxitura lanak. Gai honetan lanean hasteko txosten teknikoak eskatu dira. Ikuspuntu teknikotik bideragarria dela baloratzen denean, obrak hasiko dira.

Ondoren, Kontuhartzaileak, besteak beste, puntu hauek nabarmentzen ditu:

- Aplikagarri den araudia. Aurrekontu-proiektua egoera ekonomiko eta finantziario orekatu batetik abiatzen dela azpimarratu du.
- Covid-19 egoerarekin arau fiskalak eten egin dira, aurrekontu- eta finantza-egonkortasunaren arloan. Egoera berezia da, beraz.
- Aurrekontu-egonkortasuna ez dela betetzen 76.750,00 euroengatik adierazi du, baina ez da beharrezkoa azaldutako egoera bereziarengatik. Likidazioan bai beteko dela uste da.
- Bestetik, aipatzea Mankomunitateak zor-portzentajea oso baxua daukala: zor-maila %3,20koa da, legeak muga %70ean ezartzen duelarik.
- Neurtzeko beste indize bat da hornitzaleei zenbat egunetan ordaintzen zaien. Legeak arautzen du 30 egunetan ordaindu behar dela eta Mankomunitateak 17 egunetan ordaintzen du. Ondorioz, baldintza hau betetzen da.
- Mankomunitateak aurrezki garbia ere positiboa dauka eta hori garrantzitsua da. Horrek esan nahi du gastu arruntak diru-sarrera arruntekin ordaintzen direla, egunerokotasunean.
- Aurreko guztia kontuan hartuta, esan daiteke aurkeztutako aurrekontuak betetzen dituela legezko baldintzak.

Eneritz Arbelaitz Sarasti Oiartzungo ordezkariak adierazi du aurkeztutako aurrekontuari egiten dioten balorazioa azalduko duela eta posta elektronikoz bidaliko dutela.

- En relación a las inversiones, las dotaciones son similares a las del año anterior. Es preciso mencionar que se prevé iniciar el año que viene los trabajos de cierre de San Marcos. Se han solicitado ya los informes técnicos pertinentes para poder empezar a trabajar en este tema. Cuando se valore que es viable desde el punto de vista técnico, se iniciarán las obras.

A continuación interviene la Interventora y destaca, entre otros, los siguientes puntos:

- Procede a analizar la norma aplicable. Recalca que el proyecto de presupuesto parte de una situación económica y financiera equilibrada.
- Con el escenario Covid-19 se han paralizado las normas fiscales en materia de estabilidad presupuestaria y financiera. La situación es, por tanto, especial.
- Indica que no se cumple la estabilidad presupuestaria por 76.750,00 euros, pero no es necesario debido a la situación especial expuesta. Sí se espera cumplir los requisitos en lo que respecta a la liquidación.
- Por otro lado, señalar que la Mancomunidad tiene un porcentaje de deuda muy bajo, del 3,20%, siendo el límite legal del 70%.
- Otro índice de medición es el plazo en el que se paga a los proveedores. La ley establece que el pago se debe realizar en 30 días y la Mancomunidad lo hace en 17 días. En consecuencia, se cumple esta condición.
- La Mancomunidad también tiene un ahorro neto positivo y eso es importante. Esto significa que los gastos corrientes se pagan con ingresos corrientes.
- Teniendo en cuenta todo lo anterior, se puede considerar que el presupuesto presentado cumple los requisitos legales.

Eneritz Arbelaitz Sarasti, representante de Oiartzun indica que va a exponer la valoración que hacen del presupuesto presentado y que lo remitirán asimismo por email.

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

Uste du aurrekontu horrek, aurrekoen antzeko egitura duela, Urnietako instalazioaren transferentziari buruzko atalak izan ezik, ez duela hondakinen kudeaketan hobetzeko asmorik, aurrekoen gisa.

Considera que este presupuesto, similar en estructura a los de años anteriores, con excepción del apartado relativo a la transferencia de la planta de Urnieta, carece, al igual que los anteriores, de la ambición de incluir una mejora en la calidad de gestión de los residuos.

Hondakinen kudeaketaren kalitatea hobetzeko, bere iritziz, ezinbestekoak dira hobekuntza fiskalak, eta uste dute puntu hori aurrekontuan sartu beharko litzatekeela hondakinen murrizketa, gaikako bilketa areagotzea eta tratamendu eraginkorragoa bultzatzeko, besteak beste. Udal batzuk irtenbide alternatiboak bilatzen ari dira gai horiek kudeatzen saiatzeko

Para mejorar la calidad de gestión de los residuos, a su juicio, son imprescindibles las mejoras fiscales y opinan que este punto debería incluirse en el presupuesto con el fin de impulsar la reducción de residuos, el aumento de la recogida selectiva, un tratamiento más eficiente, entre otros. Algunos ayuntamientos están buscando soluciones alternativas por su cuenta para intentar gestionar estos temas.

Alde horretatik, ezinbestekoa deritzo aurrekontuetako partidak ahalik eta xehetuen jartzea. Beste batzuetan epaitegietara jo da udal bakoitzak erabilitako zerbitzuak aurrekontuetan isla daitezela erreklamatzeko.

En este sentido, considera imprescindible que las partidas reflejadas en el presupuesto sean lo más concretas posible. En otras ocasiones se ha recurrido a los tribunales para reclamar que se reflejen en los presupuestos los servicios utilizados por cada ayuntamiento.

Uste dute alderdi hori zehatzago islatu beharko litzatekeela aurrekontuan. Adibide gisa, beira biltzeko zerbitzuari dagozkion igluak garbitzeko partida aipatu da, gaikako bilketaren kontratuan sartu dena. Kasu honetan partida propioa esleitu beharko litzatekeela uste dute. Antzeko zerbait gertatzen da Garbiguneei eta Aizmendiko zabortegiari buruzko partidekin.

Consideran que este aspecto debería reflejarse de forma más exacta en el presupuesto. Como ejemplo, se menciona la partida correspondiente a la limpieza de los iglús correspondientes al servicio de recogida de vidrio, que se ha incluido dentro del contrato de recogida selectiva. Opinan que se debería asignar en este caso una partida propia. Algo similar ocurre con las partidas relativas a los Garbigunes y el vertedero de Aizmendi.

Bestalde, adierazi du aurrekontuen eta likidazioaren artean beti aldeak egoten direla, eta eskatu du herri bakoitzak egindako ekarpena ere zuzendu dadila.

Por otra parte, señala que siempre hay diferencias entre presupuestos y liquidación y pide que se corrija también la aportación de cada municipio en base a la liquidación del presupuesto.

Esan du beste puntu garrantzitsu bat GHKren bidez hondakinen kanpo tratamenduari dagokiona dela. GHKk sortutako hondakinen arabera ezartzen duen tasak udal batzuei kalte egiten diela adierazi dute. Mankomunitatearen barruan GHKren irizpideak aplikatuko balira, Tolosaldean egiten den moduan, bultzatuko litzateke herri bakoitzean ere biohondakinen bilketa eraginkorrak ezartzea, ekonomikoki ere eragina izango lukeelako. Zehazki, Donostiak eta Lasartek egun baino gehiago ordaindu

Señala que otro punto importante es el relativo al tratamiento externo de residuos a través de GHK. Señalan que la tasa que impone GHK en función de los residuos generados perjudica a algunos ayuntamientos. Si en el seno de la Mancomunidad se aplicaran los criterios de GHK, como se hace en Tolosaldea, se impulsaría que en cada localidad también se establecieran unas recogidas efectivas de los bioresiduos, ya que también repercutiría económicamente. En concreto, Donostia y

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

beharko lukete, eta gainontzeko udalek, ordea, gutxiago (udalerriz-udalerri, kopuruak zehaztu ditu). Gai hori aztertzeko eskatu dute.

Lasarte tendrían que pagar más que en la actualidad, mientras que el resto de los ayuntamientos tendrían que pagar menos (municipio a municipio, ha facilitado los datos). Solicitan el estudio de esta cuestión.

Esan du aurrekontu honetan ez da ikusten errefusaren kopuruan murrizteko edo biohondakinaren bilketa hobetzeko asmorik, eta puntu horiek aztertzeko eskatu dute. Horretarako, aurrekontua erabat aldatu beharko litzateke, lehentasunak ezarriz, inbertsio planak baloratuz eta udalen beharretara egokituko den aurrekontua bilatuz.
Azkenik, aurrekontua hobetzen laguntzeko prest dagoela adierazi du.

Dice que en este presupuesto no se ve la intención de reducir la fracción resto o mejorar la recogida del biorresiduo y piden que se analicen estas cuestiones. Para ello, habría que modificar totalmente el presupuesto, estableciendo prioridades, valorando los planes de inversión y buscando un presupuesto que se adaptara a las necesidades de los ayuntamientos.
Para finalizar, manifiestan su disponibilidad para colaborar en la mejora del presupuesto.

Beste parte hartzerik ez eta Lehendakariak ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatu du:

No hay más intervenciones y la Presidenta PROPONE votar el siguiente **ACUERDO:**

**LEHENA:** 2022. ekitaldirako aurrekontu orokorra hasieran onartzea **29.402.526,00** eurotan. Behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar izan gabe, jendaurrean jartzeko 15 egun balioduneko epean alegaziorik ez bada aurkezten.

**PRIMERA:** Aprobar inicialmente el presupuesto general para el ejercicio 2022. Se ha equilibrado en **29.402.526,00** euros y se aprobará definitivamente, sin necesidad de tomar nuevos acuerdos, si en el plazo de exposición pública de 15 días hábiles no se presenta ninguna alegación.

**BIGARRENA:** Aurrekontua Gauzatzeko Araua onartzea. Hori onartutako aurrekontuaren proiektuan dago.

**SEGUNDA:** Aprobar la Norma de Ejecución Presupuestaria que figura en el proyecto de presupuesto aprobado.

**HIRUGARRENA:** Kontzeptu desberdinengatik Mankomunitateko udal kideek egin behar dituzten ekarpenak onartzea.

**TERCERA:** Aprobar las aportaciones a realizar por los Ayuntamientos miembros de la Mancomunidad en relación a diversos conceptos.

**LAUGARRENA:** Indarrean dagoen araudia jarraituz, izapide egokiak egitea.

**CUARTA:** Proceder a la tramitación oportuna atendiendo a la legislación vigente.

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko 95 botorekin eta kontrako 65 botorekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por 95 votos a favor y 65 en contra.

Aldeko 95 botoak Donostia, Lasarte-Oria Pasaia, Urnieta eta Lezoko ordezkarienak dira; kontrako 65 botoak, berriz, Astigarraga, Errenteria, Oiartzun, Hernani eta Usurbilgo Udaleko ordezkarienak dira.

Los 95 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Lasarte-Oria, Pasaia, Urnieta y Lezo, los 65 votos en contra corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Astigarraga, Errenteria, Oiartzun, Hernani y Usurbil.

**4. 2022ko Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren hasierako onarpena. Esp. 2021OROK0076**

**4. Aprobación inicial de la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo 2022. Exp. 2021OROK0076**



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

Lehendakariak proposamena azaldu eta onartzea proposatu du. Honela dio proposamenak:

TAOL 90. artikuluaren arabera, urtero, eta aurrekontuarekin batera, langileen plantilla onartu behar da.

Halaber, LPZri dagozkion kopuruak eguneratu behar dira.

2021eko LPZri dagokionez, esleitutako hizkuntza-eskakizun batzuk aldatzea proposatu da. Ildo horretan, 2021eko uztailaren 12an, nahitaezko txostena eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari, sei lanposturen hizkuntza-eskakizuna aldatzeko (zerbitzuen teknikari arduraduna, kontabilitateko administraria, administrari orokorra (II), tasen administraria eta zerbitzuen ikuskatzailea). 2021eko uztailaren 26an jaso zen proposamenaren aldeko txostena.

2021eko abuztuaren 25ean, San Marko Mankomunitateak Mankomunitateko lanpostuen zerrendari buruzko negoziazio-prozesua hasi zuen. Horretarako, sindikatu nagusiei bilera batera deitu zien 2021eko irailaren 8an, baina ez zen ordezkaririk bertaratu.

Mahaia osatuta, gai-zerrendako 2. puntuan LPZren aldaketen proposamena aurkeztu zen, hau da, gaur egun bigarren hizkuntza-eskakizuna eskatzen zitzaien lanpostuei hirugarren hizkuntza-eskakizuna eskatzea.

2021eko irailaren 10eko jakinarazpenaren bidez, Mankomunitateko lehendakariak LPZn egindako aldaketen proposamena bidali zien sindikatu nagusiei, ekarpenak egin zitzaten. Horretarako epea 2021eko irailaren 14an amaitu zen, 14:00etan, eta ez zen bat bera ere egin. Beraz, proposamena onartutzat jo zen.

Hori horrela, onartzea proposatzen den langile eta lanpostuen zerrenda atxikitzen da 2022rako.

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

**LEHENENGOA:** 2022ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda behin behinekoz

La Presidenta explica la propuesta y propone su aprobación. La propuesta es la siguiente:

